



JARRAIBIDEA: 3/2023 (TLB-2/ETKZ-3)

GAI A: Murriztapen bereziko egunetan zirkulatzeko baimen bereziak

Trafikoko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 24ko Ebazpena, 2023. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituen, 2023ko otsailaren 13ko BOEn eta EHAAn argitaratu zen.

Ebazpen horretan aurreikusten da zirkulazio-murrizketak ezarrita dauden egunetan zirkulatzeko baimen bereziak emateko aukera, betiere zerbitzuak nahitaez egin beharra dagoela behar bezala justifikatzen bada.

Jarraibide honen xedea da zehaztea zeintzuk izango diren murriztapen bereziko egunak eta, hortaz, zein egunetarako ez den zirkulatzeko baimen berezirik emango, baldin eta aparteko inguruabarririk ez badago.

| HILA | EGUNA | ORDUTEGIA |
|---------|-------|------------------------|
| Apirila | 5 | 17:00etatik 21:00etara |
| Apirila | 6 | 10:00etatik 15:00etara |
| Apirila | 10 | 16:00etatik 21:00etara |

Dena den, egun horietatik kanpo, trafikoko lurralde-arduradunek, Trafikoko zuzendariak eskuordetuta, trafikoa arautzeko neurri bereziei buruzko Ebazpenaren arabera zirkulazioa murriztuta dagoen bideetan eta aldietan zirkulatzeko baimen bereziak eman ahal izango dituzte, aldi baterako edo bidaiak bakar baterako.

Baimenak emango dira betiere alde aurretik agiri bidez justifikatu baldin bada salbuesten diren egun horietan bidaiak nahitaez egin behar direla, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorren 39.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.





Gainera, emango diren baimen berezietan datu hauek jaso behar dira: matrikula eta ibilgailuaren ezaugarri nagusiak, garraiatuko den salgaia, eraginpeko bideak eta garraioaren baldintzak.

Sonia DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA
TRAFIKOKO ZUZENDARIA